

Bertsolaritza euskaraz egiten den ahozko inprobisazioaren tradiziozko artea da, errima eta metrika eredu jakin batzuei jarraituz kantatuz inprobisatzen den poesia. Bertso esaten zaio ahapaldi kantatu bakoitzari, eta bertsolari, bertsoak euskaraz kantatuz inprobisatzen duen pertsonari. Bertsolaritzaren forma idatzia ere badago, baina gaur egun bertsolaritzat bertsoak inprobisatu eta kantatzen dituen hartzen da batez ere.

Bertsolaritzaren inguruko testigantza zaharrenak 1.452 urtekoak dira. Urte horretako Bizkaiko Foru Zaharrean emakume inprobisatzaileei buruzko aipamenak jasotzen dira. Hala ere, bertsolaritza, orain ulertzen dugun bezala, XIX. mendekoa da. Gaur egun, bertsolaritza euskal kulturaren bizirik dagoen adierazpide bat da, eta 1.500 bertso emanaldi inguru ditu urtean, tradiziozko formatuan zein esperimentaletan: bertso-bazkariak, jaialdiak, txapelketak, sariketak...

1986an Bertsozale Elkarteak sortu zen, belaunaldiz belaunaldi bertsolaritzaren etorkizuna eta transmisioa bermatzeko. Egun 2.500 bazkide ditu. Hiru hamarkada hauetan, hiru ardatz nagusi dituen kultura-proiektua diseinatu eta garatu du:

- Belaunaldien arteko transmisioa. Estrategia hori irakaskuntza arautuan, bertso eskolan eta aisialdian garatzen da.
- Sustapen eta hedapena. Bertsolari txapelketak antolatzen dira, hedabideekiko zerbitzua, ETB1eko *Hitzetik Hortzera* telebista programaren ekoizpena eta bertsoa.eus webgune espezializatuaren koordinazioa.
- Dokumentazioa eta ikerketa. Kultur ondare ez-materiala babesten eta ikertzen duen atal espezializatua. Dokumentazioa Xenpelar Dokumentazio Zentroaren bidez kudeatzen da.

Xenpelar Dokumentazio Zentroa 1991. urtean sortu zuen Bertsozale Elkarteak. Zentroaren helburua bertsolaritzaren ondare ez-materiala zaindu eta zabaltzea da, eta, horretarako, ahozko ondare hori eskuratu eta ezagutzeko aukera ematen duten berriazko dokumentazio-teknikak garatu eta aplikatu ditu sorreratik. Ahozko ondareari dagozkion ezaugarriak aintzat hartuz, berez iragankorra eta materiagabea den arte bat dokumentu bidez betiketzea da helburua, bertsolaritzaren corpus egokia eta interesdun guztientzat irisgarria izango dena sortzea. Dokumentazio zentroak, 29 urteko esperientzia dokumentalean, koordinatutako ataletan antolatutako egitura espezializatua sortu du, dokumentazioaren hiru funtzio nagusiak garatzeko, hau da, bildu, antolatu eta zabaltzea.

Xenpelar dokumentazio zentroaren bilduma bertsozaleen altxor kolektiboa da. Zentroaren berezitasunetako bat bertsolaritzaren inguruan sortutako informazioa eta dokumentazioa biltzeko sistema bat antolatzea da: Bertsozale Elkarteak garatzen dituen proiektuen bidez egindako dokumentu-bilketatik eta bertsozaleen borondatezko dohaintzetatik elikatzen da zentroa: Grabazioak, bertso emanaldiei buruzko informazioa, liburuak, argazkiak, bertso paperak, artikuluak, kartelak etab.

Dokumentuak pixkanaka antolatu dira, bertsolaritzari dagokion sistematizazioa lortu arte. Bertsoen dokumentu-tratamendurako deskribapen-tresna eta irizpide espezializatuak sortu dira (tesauroak, transkripzioarako arauak, melodiak sailkatzeko arauak, ediziorako irizpideak...).

Azken urteetan, berriazko prozesu dokumental hau antolatzeko behar den programa informatiko propioa garatu da: BDB, bertsolaritzaren datu-basea (<https://bdb.bertsozale.eus/>).

Ondarea zentroak eskaintzen dituen zerbitzu dokumentalen bidez zabaltzen da: Fonoteka, bideoteka, fototeka, liburutegia, bertsoteka, artxiboa, hemeroteka, biografia eta bertso doinuen zerbitzua.

Gaur egungo bertsolaritzaren ikus-entzunezko ondarearen corpusa eraikitzea izan da Xenpelar Dokumentazio Zentroaren egitasmo nagusienetako bat: Bertsolaritza ahozko kultur jardun bat izanik, ikus-entzunezko grabazioa da bat-bateko bertsolaritzaren euskarri dokumental oinarrizkoa. Hori dela eta, Xenpelar dokumentazio zentroa bertso emanaldien grabazioak biltzeko sarea koordinatzeaz arduratzen da, bai Bertsozale Elkarteko hedapen-proiektuek sortutako sinergiak aprobetxatuz, bai bertsozaleek beren borondatez egindako lanaren bidez, bertso-eskolen bidez eta abar.

Helburu horren bidez, bertso sorkuntzari buruzko ikus-entzunezko dokumentazioa bildu nahi da, egungo bertsolaritzaren ikuspegi orokorra eskaintzen duten jarduerak grabatuz, eta urteko sorkuntzaren %15 inguruko lagina bilduz, herrialde, adin eta forma aniztasuna islatuko dituen. Urteko antologia horren bidez, gaur egungo bertsolaritza corpusa sortzen da (testuak, melodiak...), oso erabilgarria dena era guztietako ikerketarako, material didaktikoa sortzeko edota bertsolaritzaren ondare ez-materiala zabaltzeko eta sustatzeko.

Egun, gutxi gorabehera, 20.000 fitxa daude jasota, bertso emanaldien nahiz bestelako grabazioen deskribapenekin (elkarrizketak, dokumentalak...). Gutxi gorabehera, 26.500 audio eta bideo grabazio gordetzen dira, era guztietako euskarrietan (bobinak, *Betacam*, *DVC-PRO*, *VHS*, *MiniDV*, *minidiskak*, kaseteak,...) eta grabazio digitalaren dimentsioa 110TB inguru da.

Grabazioen tratamendua eta digitalizazioa Xenpelar dokumentazio zentroan egiten da. Bideo eta audio euskarri desberdinetarako irakurgailuak daude, eta interesa duen orori funtsak kontsultatzeko aukera ematen zaio. Grabazio katalogoa BDB, bertsolaritzaren datu-basearen bidez zabaltzen da.